



BERDINDU ZERBITZUA

URTEKO TXOSTENA





AURKIBIDEA

ARRETA PERTSONALA	3
SARRERA	4
ARRETEK LABURPENEA	5
ERABILTZAILERAK GUZTIEI EGINIKO ARRETEK	6
URTEKO ARRETEK GUZTIRA	6
ERABILTZAILERAK MOTA	6
FAMILIAK	9
ADINAREN ARABERAKO ARRETA	10
JATORRIAREN ARABERAKO ARRETA	11
ESKARIAREN JATORRIA	12
KONTSULTA-MOTAREN ARABERAKO ARRETA	13
ESKAERA ESANGURATSUAK	16
KOMUNIKABIDEA	17
ZERBITZUA EZAGUTZEKO MODUA	18
FAMILIEI LAGUNTZEKO TALDEAK	19
ESKOLA ARRETA	21
BERDINDU ESKOLAK ZERBITZUAK	22
IRAKASLEAK - FORMAKUNTZAK ETA AHOLKULARITZAK	22
IKASLEEN FORMAKUNTZAK	26
FAMILIEN FORMAKUNTZAK	28
BESTE INTERES TALDE BATZUK	28
KOORDINAZIO ARLOAREN MEMORIA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
“ERABEREAN” SAREAN PARTE HARTZEA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
BERDINDU WEBGUNEAN EGINDAKO JARDUERAK	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
BERDINDUREN WEBGUNEAN 2021EAN EGINDAKO EDUKI-EGUNERATZEAK	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.



BERDINDU ZERBITZUA

ARRETA PERTSONALA



SARRERA

Eskuartearen dugun txostena Berdindu zerbitzuak 2021. urtean zehar eginiko lanari dagokio. Honako zehaztasunak egin behar ditugu:

- Txostena bat dator urte naturalarekin, baina ez ala bere iazko homologoa, martxoko hilabetearen hasi bait zen, zerbitzuaren gaur egungo kontratazioa hasi zenean. Hau, 2020an bizitako osasun egoera bereziari lotuz, ezinezko bilakatzen du kontraste lana egitea denboran zehar.

Egoera honek, ez zituen kuantitatiboki soilik baldintzatu txosteneko datuak, kualitatiboki ere egin zituen. Aipaturiko txostenean jasotako eskakizunetako batzuk ez zetozen bat jaso ohi diren eskakizun tipologiarekin, askotan, konfinamendu egoerarekin loturik edo honengatik larriagotuak bait zeuden. Zorionez, urte honetan egoera aldatu egin da, txosten honetan jasotako eskaera motak hein handiago batean errealitatearekin bat datozela baieztatu dezakegularik.

- Txosteneko datu guztiak kontsulta berrien ingurukoak dira, hau da, zerbitzuarekin urtean lehenengo aldiz harremanetan jartzen diren pertsona edo erakundeen ingurukoak. Eskaera batzuk denboran zehar jarraipena behar izaten dute edo pertsona batzuk zerbitzura hainbatetan gerturatzen dira. Eskakizun hauek, *Jarraipen* moduan sailkatuak, *Kontsulta motaren arabera* arreta atalean soilik hartzen dira aintzat. Irizpide hau ezarri zen urtean zehar zerbitzura gerturatu diren pertsona erabiltzaileen multzoaren ikuspeirik errealistena lortzeko aukerarik onena zela ulertu zelako.
- Katetoria desberdinetan azaltzen diren datuak hiru lurralde historikoetan erantzuniko eskakizun guztiekin datoz bat. Irizpide hau ezarri zen lurraldearen osotasunean modu orokor batean ulertzen den zerbitzuaren ikuspegi panoramiko bat eskaintzeko asmoz. Honek esan nahi du, atal bakoitzean deskribatutako gidalerroei dagokienez lurralde guztietan paralelismoa dagoenez, ezin dela, jakina, erabateko paralelismoa ezarri ehunekoaren banaketari dagokionez.

Ikuspegi panoramikoa ez oztopatzeko asmoz, lurraldeen arteko alde esanguratsua ikusten den ataletan soilik egingo da honen inguruko ohar labur bat.




ARRETEK LABURPENA

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
ARRETEK GUZTIRA	LEHEN. KONTSULTA	151	259	175	585	%60
	JARRAIPENA	160	118	113	391	%40
	GUZTIRA	311	377	288	976	%100
LEHENENGO KONTSULTA						
ERABILTZAILA MOTA	PERTSONAK	83	161	95	339	%58
	ERAKUNDEAK	68	98	80	246	%42
	GUZTIRA	151	259	175	585	%100
PERTSONA ERABILTZAILAK	EMAKUME ZISEXUALA	28	58	28	114	%34
	EMAKUME TRANSEXUALA	13	33	12	58	%17
	GIZON ZISEXUALA	14	23	30	67	%20
	GIZON TRANSEXUALA	11	33	16	60	%17
	GENERO ANITZA	7	4	3	14	%4
	E. GABE	10	10	6	26	%8
	GUZTIRA	83	161	95	339	%100
FAMILI KOPURUA	GUZTIRA	22	42	17	81	%24
ESKAERA KOPURUA ADINAREN ARABERA	< 11 URTE	0	1	0	1	%0
	12/18	10	13	9	32	%10
	19/30	13	42	34	89	%26
	31/44	13	25	21	59	%17
	45/64	13	32	19	64	%19
	>65	1	1	1	3	%1
	E. GABE	33	47	11	91	%27
	GUZTIRA	83	161	95	339	%100
ETORKINAK	GUZTIRA	9	24	28	61	%18
ESKAERAREN JATORRIA	ARABA	131	6	1	138	%24
	BIZKAIA	6	198	8	212	%36
	GIPUZKOA	4	24	154	182	%31
	BESTE BATZUK	2	9	5	16	%3
	E. GABE	8	22	7	37	%6
	GUZTIRA	151	259	175	585	%100
HARREMANETARAKO BIDEAREN ARABERAKO ESKAERA KOPURUA	AURREZ AURREKOA	27	47	30	104	%18
	TELEFONIKOA	83	154	94	331	%56
	POSTA E.	39	48	48	135	%23
	SARE SOZIALAK	2	1	1	4	%1
	BIDEOKONFERENTZIA	0	9	2	11	%2
	BESTE BATZUK	0	0	0	0	%0
	E. GABE	0	0	0	0	%0
	GUZTIRA	151	259	175	585	%100



ERABILTZAILA GUZTIEI EGINIKO ARRETAK

URTEKO ARRETAK GUZTIRA



Guztira 976 dira Berdindu Zerbitzuak erantzun dituen eskaerak dagokigun 2021. urtean. Huetatik, %60a (585) zerbitzura lehenengo aldiz jotzen duten pertsonenak eta %40a (391) jarraipeneko arretak direlarik. Eskaera berrien aldeko desfase hau, gutxiago antzematen da Araban, non bi kategorien arteko oreka handiagoa ikusten den.

Jarraipen-arretatzat hatzen ditugu denboran zehar harremanetan behin baino gehiagotan jartzen diren pertsonen eskaintakoak. Hainbat arrazoi egon daitezke:


1. Izapideak edo berehalakoak ez diren informazio bilaketak behar dituzten eskaerak.
2. Une desberdinetan, arrazoi ezberdinengatik heltzen diren pertsonak.
3. Laguntza behar duten pertsonen egoera emozionala.

Osotasunean, erantzundako eskaera kopuruaren igoera mailakatu bat ikus daiteke denboraldi guztian zehar. Iaz izandako egoera berezia kontuan izanik, ez da egokia aurreko urtean jasotako datuekin alderatuz balorazio bat egitea. Baina aurreko urteetako esperientziaren arabera, erantzundako eskaera kopuruan nolabaiteko normaltasuna lortu dela uste dugu. Hau honela da lurralde guztietan.


ERABILTZAILA MOTA




Jarraian datozen ataletan biltzen diren datuak urtean lehenengo aldiz **zerbitzura gerturatu diren pertsona edo erakundeekin** (585 arreta) daude kalkulaturik. Irizpide estatistikoek honela egitera garamatzate, baina gogorarazi nahi dugu eskakizun berriak zerbitzuak erantzundako guztien %60a baino ez direla.



PERTSONAK	339
ERAKUNDEAK	246



EMAKUMEA	172	GENERO ANITZA	14
GIZONA	127	E. GABE	26



EMAKUME ZISEXUALA	114	%33	GIZON TRANSEXUALA	60	%18
EMAKUME TRANSEXUALA	58	%17	GENERO ANITZA	14	%4
GIZON ZISEXUALA	67	%20	E. GABE	26	%8

Ikus daitekeen moduan, eskaeren gehiengoak maila pertsonalean izaten jarraitzen dute %58, %42a erakundeei egokituak izanik.

Erakundeak.- Urte honetan zerbitzuarekin harremanetan jarri diren erakundeen lan esparrua nahiko heterogeneoa da. Maila honetan nabarmentzen ditugu:

- Ikastetxeak.- Kontuan hartzekoa izan da zerbitzura jo duten ikastetxeen zenbatekoa (ikusi *Eskaera mota* atala). Batik bat, formakuntza tailerrak (irakasle eta ikasleentzako) eta kasu zehatzetarako aholkularitza (gehien bat sexu eta/edo genero identitatearekin zer ikusia duten gaietan) eskaerak igortzeko bulegoekin harremanetan jartzen diren ikastetxeak dira. Nabarmendu behar da, behin dagokion bulegoak eskaria jasotzen duenean, Berdindu Eskolak zerbitzura bideratzen dela honen kudeaketa zuzena egiteko.
- Gizarte-sentsibilizazioa.- Hainbat erakundek informazioa, lankidetzeta edo erreferentzia pertsonalak eskatzen dituzte sentsibilizazio ekimenetarako.
 - a. Udaletxeak eta berdintasun sailak adierazpen ofizialak eskatuz data zehatzetara begira (maiatzak 17 eta ekainak 28), zabaltzeko materiala... edo zerbitzuaren prestazioen inguruko informazioa (egindako lanak, itzulpen-zerbitzua...).
 - b. Hedabideak, bereziki data esanguratsuen inguruko informaziorekiko jakin-minarekin .
 - c. Hala nola, erakundeen sentsibilizazio ekimenetan parte-hartzaile izan zitezkeen pertsonen erreferentzia eskakizunak jaso dira: web-sail batean parte hartzeko prest dauden trans pertsonak, ikerketetan, komiki baten argitaraldian...



- Zerbitzuen erabiltzaileei buruzko arretarekin zer ikusia duten hainbat erakunde, edo beste erabiltzaile batzuei buruzko aholkua eskatzen duten erakundeak: Gizarte Zerbitzuak, haurtzaro eta familia zerbitzuak, CEAR, Gurutze Gorria, Arrats Elkarte (Aukera Zerbitzua), psikologo pribatuak, bizilagun elkarteak, Errespetuz, Naizen, Gehitu... Nabarmendu, gainera zerbitzua bera dela erakunde desberdinekin harremanetan jartzen dena, aintzat jotzen den kasuetan.


Pertsonak.- Emakumeek eginiko eskakizun gehiago daudela ikus daiteke, desfase hau Araba eta Bizkaian gehiago antzematen delarik, Gipuzkoan orekarako joera handiagoa ikusiz. Argitu beharra dugu emakume kategoriak emakume guztiak barne biltzen dituela, nahiz transexualak nahiz zisexualak izan, gizon kategoriarekin gauza bera gertatzen delarik. Gainera, bi kategoriek aitak eta amak barne biltzen dituzte, iaz hauek *Gurasoak* izeneko berezko kategorian jasotzen zirelarik.

Apur bat gehiago doitzuz, emakume zisexualak emakume transexualen eskariak bikoizten dituztela ikusten dugu (%33-%17), gizonetzkoen artean ehunekoak askoz ere estuagoak izanik (%20-%18). Azken iruzkin honen inguruan, Bizkaiko kasu zehatzean, joera hau apurtu egiten dela zehaztu behar da. Bertan, nabarmenki handiagoa baita artaturiko trans gizon kopurua zis gizonena baino.

Genero anitza kategoria, ez gizon ezta emakume trans edo zisexual moduan identifikatu gabe, beste identitate batzuetan (ez-bitarrak eta Queer, beste batzuen artean) kokatzen direnei igortzen zaie. Bulegora euren sexu edo/eta genero identitatea nola sentitzen eta bizitzen duten moduarekin elkaturik dauden pertsonal, familiarteko eta kanpo-gatazkekin gerturatzen diren gizabanakoak. Ikus daitekeen moduan, lurralde ezberdinetan homogeneousoa den ehuneko txiki bat da.

Aurrerantzean, testuan “trans” termino orokorra erabiliko dugula azaldu nahi dugu. Bai emakume eta gizon transexual baita emakume eta gizon trans moduan definitzen diren pertsona guztiak barne biltzen dituen termino barneratzaile moduan.

FAMILIAK






Urtean zehar 81 familiei egin zaie arreta, pertsonei eginiko lehenengo arreta guztien %24a suposatzen dutelarik. Iaz adierazten zituzten arreten %17arekin alderatuz arreta jaso duten familien ehunekoak gora egin duela ikus daiteke. Eskerak gehienetan amek eginak dira eta ia modu bakarrean euren, gehiengoetan adin txikiko, seme-alaben identitate eta/edo genero portaera ez-normatiboekin lotuak. Funtsezkoa izanik amen eta aiten arteko desberdintasuna, badirudi zerbitzura jotzen duten aita kopurua igoera txiki bat izan duela.

Egoerak eragindako kezka eta estutasunen inguruko informazio, aholkularitza eta laguntza eskakizunak dira. Kategoria *Familiak* moduan izendatu arren, legezko tutore eta adin nagusiko laguntzaileak ere barne biltzen dituela argitzen dugu.

Familia arreta sustatu duen adin txikikoaren adinaren inguruan, 10 arreta egin dira 11 urte baino gutxiagoko haurrak dituzten familiakoei eta 56 arreta 12 eta 18 urte bitarteko (14-15-16) adin txikikoak dituzten familiei. Datu hauei, arreta sustatu zuen seme-alabak adin nagusikoak zirenez datu hau bildu barik gelditu ziren 15 familien arretak batu behar zaizkio.

ADINAREN ARABERAKO ARRETA



<11	1	45-64	64
12-18	32	> 65	3
19-30	89	E. GABE	91
31-44	59		

Zehaztu beharra dugu, aurten adin tartekak eguneratzearen ondorioz, ezin ditugula datuak aurreko urteetan egindako txostenetakoekin alderatu.

19 eta 30 urte bitartea apur bat nabarmentzen dela ikusten dugu eta jarraian antzeko zenbakiak 31-44 eta 45-64 adin tartetean.



Euren adina zehaztu ezin izan den erabiltzaileen ehuneko bat dago. Batiz bat, zerbitzura mezu elektronikoko bitartez heldu diren edo zehazteko zailtasunak sortzen dituzten ezaugarri oso zehatzak dituzten bitartekoak dira.

19-30 urte.- Adin-tarte nagusia (agian 19 urtetik 30etik baina gertuago). Eskari gehienek sexu eta/edo genero identitatearekin loturik daude (dokumentu-aldaketa, sexu berresleitze prozedura, zalantza edo gatazka pertsonalak), lurralde desberdinetan hala izanik. Gainerako eskariak askotarikoak dira, hein handi batean esparru juridikoarekin zer ikusia baldin badute ere: asiloa, familia eraketa, seme-alabatasuna. Azkenik, baina hein txikiagoan, ikasleen lanak.

31-44 urte.- Adin-tarte honetan ere aurreko eskema errepikatzen da, eskakizunen gehiengo bat sexu eta/edo genero identitatearekin lotuta daude, eta gainerakoak, anitzak: asiloa, familia eraketa, seme-alabatasuna, homosexualitatea...

45-64 urte.- Ehunekoa, aurreko adin-tartearen antzekoa da. Berrito ere sexu eta/edo genero identitatearekin zer ikusia duten kontuak dira adin-tarte honetan nabarmentzen direnak. Esan beharra dugu erabiltzaileen zati handi bat zerbitzura bere seme-alabei akonpainamendu egoki bat egiteko gai honen inguruan informazio eta errekurtso eske etortzen diren gurasoak direla. Hala ere, bateratze (ezkontzak edo izatezko bikote), seme-alabatasuna, erasoren bat jaso izana, berdinen taldeak, eta abarren inguruko eskaerak ere jasotzen dira.

Adin txikikoei (12-18 urte) eginiko arretei dagokionez, ia guztiak euren identitatearen bizipenarekin lotura dutela esan daiteke.

Nahiz eta esku-artearen dugun grafikoan ez den biltzen erabiltzaile berrien ingurukoa besterik ez delako, esan beharra dugu, jarraipen arreta kopuru garrantzi bat ere egin zaiela 18 urte baino gutxiagoko trans gazteei. Arretak norberaren gorputzarekin zailtasunekin, hezkuntza eta familia arloan jasandako transfobia egoerekin, informazio eskariak dokumentazio aldaketarako, gizarte isolamendua, inguru seguruen bilaketa, eta abarrek bultzatzen dituzte.

>65 adin-tarteari dagokionez, ehunekoa, ikus daitekeen moduan, txikiena da eta batik bat harreman inguruekin izaten du lotura.


Laburbilduz.- Eskaeren gehiengo bat 19-30 adin-tartekoengandik datoz, trans edo ez-bitar identitatea duten gazteak gai anitzekin datoz, esaterako: dokumentazio-aldaketa, tratamendu hormonalak, gorputz moldaketak, bere bizipenekin loturiko gaiak, e.a. Kategoria hau, halaber, ugariena da gainerako adin-tarteetan.

JATORRIAREN ARABERAKO ARRETA

Etorkinei eginiko arretak, guztien %18a suposatzen dute. Nahiz eta ehuneko hau apur bat irregularra izan, Gipuzkoaren kasuan altuagoa da (%29). Datu honek iaz jasotakoarekiko paralelotasun handia du. Eskaera gehienak sexu eta/edo genero identitatearekin dute lotura (dokumentazioa bideratzea, tratamenduak eskuratzea, e.a.) edo arlo juridikoarekin (asiloa, erregulazio-administratiboa,




kalteberatasun egoera). Hondarkin moduan, etorkin seropositiboek erretrovirusen aurkako tratamendua eskuratzearen inguruan eginiko eskaerak ere erantzun dira.



BAI	61
EZ	198
E. GABE	80

ESKARIAREN JATORRIA



ARABA	138	BESTE BATZUK	16
BIZKAIA	212	E. GABE	37
GIPUZKOA	182		


Eskuartean dugun grafikoaren ehunekoen banaketa, jakina, lurralde desberdinetan erantzundako lehenengo arreta kopuruarekin dago loturik.



Gainera, hasierako “arreten laburpena” taulan ikusi izan dugun moduan, bai Araban baita Gipuzkoan ere, eginiko arretetan 10 eskakizunetatik ia 9k lurraldean bertan dute jatorria, Bizkaia izanik lurralderik heterogeneoa.

KONTSULTA-MOTAREN ARABERAKO ARRETA

Aurreko ataletan ez bezala, oraingoan urtean zehar jasotako eskakizun guztiak izango ditugu kontutan. Beraz, bertan eginiko jarraipen eskaerak ere kontutan izango ditugu.



SEXU/GENERO IDENTITAT.	437	%37	SENTSIBILIZAZIO SOZIALA	86	%7
JURIDIKOA	208	%18	HEZKUNTZA	173	%15
SEXU OSASUNA	110	%9	SEXU ORIENTAZIOA	54	%5
SOZIALIZAZIO SAREAK	64	%6	LGTBIFOBIA	34	%3

Aurreko ataletan jasotako eskarien inguruko zertzeladak ematen joan garen arren, atal honetan xehetasun handiagoz aztertuko dugu gai hau, bereziki esanguratsua izateagatik, erabiltzaileek azaleraturiko beharrak ulertzerako orduan.

Lehenik eta behin, orokorrean *sexu eta/edo genero* kategoria nabarmentzen dela ikus dezakegu lurralde guztietan. Aurreko ataletan ikusi dugun zerbait da, eta beste modu batean izan ez zitekeenez, grafiko honek hala baieztatzen du. Arlo *Juridikoa*-n ere ehuneko garrantzitsu bat ikusten dugu, gertutik *Hezkuntza*-k jarraitzen diolarik.

Kategoria desberdinetan gelditu egiten gara:

Sexu eta/edo genero identitatea.- Kategoria nagusia da. Adin txikikoen eskaerak jaso dituen bakarra da eta gainera, adin-tarte ia guztietan nagusitzen dena. Eskaera motei dagokionez, hurrengoak nabarmentzen ditugu:

1. Adingabeko transak: maila honetan gurasoek, ikastetxeek edo adingabekoen munduarekin lotura duten beste pertsona edo erakundeek eginiko eskariak oso ohikoak izan dira urtean



zehar (2020an ikusi egin zen joera). Batik bat adingabekoen sexu identitateen eta hauen genero portaera ez-normatiboen inguruko zalantzen edo ezinegonentzat aholku eta laguntza eskakizunak dira.

2. Dokumentazio aldaketa/dokumentazio iragankorraren inguruko informazio edo arazoak. Ugariak izan dira erregistro zibilean izen eta sexu aipamenaren aldaketan eta Eusko Jaurlaritzaren dokumentazio iragankorrean interesaturik jaso ditugun eskariak pertsona eta familien aldetik. Sorturiko arazoei dagokionez, esan beharra dugu DGRN 23/10/2018 instrukzioaren arabera izen aldaketarako beharrezkoak ez diren baldintzak eskatzea izan dela nagusia. Baldintza hauen artean ustezko izenaren ohiko erabilera frogatzea, Eusko Jaurlaritzak igorritako dokumentazio iragankorra izatea edo egintzan lekukoaren agertzea daude.
3. Tratamendu hormonalen eta ebakuntza prozesuen (ezaugarriak eta nola eskuratu) inguruko informazioa, baita prozesuan zehar sorturiko estatusun eta arazoaren aurrean laguntza ere.
4. Laguntza eta aholkularitza prozesu identitarioetan (zalantzak, ondoezak, e.a.).
5. Harremantze inguruen eta erreferente pertsonalen eskariak.
6. Euren ondorengoen sexu eta/edo genero identitatea onartu eta, batiz bat, ulertzeko zailtasunak dituzten gurasoei laguntza, babesa eta aholkularitza.

Ikus daitekeen moduan, kategoria anitz bat da. Gainera, aipagarria da euren sexu eta/edo genero identitate bereko pertsona batek arreata egitea eskatu duten kasu guztietan hala egin dela.

Juridikoa.- Bi dira maila honetan nagusitzen diren eskari motak:

1. Dokumentazio aldaketa (trans pertsonak). Ezer baino lehen, atal hau aurrekoarekiko ez dela baztertzaila argitu nahi dugu. Sexu eta/edo genero identitate mailan jasotako eskaera asko *Juridikoa* mailari egiten bait diote jaramon dokumentazio aldaketaren ingurukoak izatean.

Eskuartean dugun atal honetako eskakizun gehienak dokumentazio ofizialean izena/sexua zuzentzeko dauden aukeren eta Eusko Jaurlaritzaren dokumentazio iragankorraren ingurukoak dira. Hala nola, prozesuan zeharreko zailtasunekiko laguntza eskariak.

2. Asilo eskaleak.- Eskari prozesua hasteko informazioa eta laguntza, euren espedientea indartzen duten laguntza txostenak egitea, hala nola harreman taldea eta euren egoera pertsonal konplexuari loturik laguntza emozionala behar duten pertsonak dira.
3. Askoz ere modu apalagoan "Familia eraketa", "Bateratze" eta "Seme-alabatasuna"-ri loturiko eskariak ditugu.

Amaitzeko, maila honetan jasotako bi tipologia nagusien (Dokumentazio aldaketa/ Asiloa) eskari kopurua hala nola nagusitasunak ez direla homogeneousak, lurraldearen arabera aldaketak erakutsiz.

Hezkuntza.- Halaber, kategoria garrantzitsu bat da. Batiz bat, bulegoekin ondorengoetarako harremanetan jartzen diren ikastetxeak dira:

1. Irakasle eta ikasleentzat sexu eta genero aniztasunaren inguruko formakuntza eskatzeko.



2. Kasu zehatzei heltzeko aholkularitza eskariak.
3. Hein txikiago batean, kolektiboaren inguruko informazioa eskatzen duten gazteak edo material eskakizunak eskolako edota unibertsitateko lanetarako, praktikak, e.a.

Argitzeko, eskaera dagokion bulegoan jaso ondoren, hau hezkuntza sailera igortzen dela bere zehaztapen eta kudeaketa zuzena egiteko.

Osasuna.- Atal honetan bilduriko eskaera gehienak trans pertsonen osasun prozesuen ingurukoak dira. Beraz, argitu beharra dugu aurreko *Juridikoa* atalean gertatzen den moduan, atal hau ez dela *Sexu eta/edo genero identitatea* atalaren baztertzaila, hainbat eskari bietan bilduz.

Atal hau gorpuzkera eta arlo emozionalarekin lotutako guztiak osatzen du.

1. Tratamendu hormonalekin, blokeatzaileekin, kamiseta herstaileak (binderrak), gorpuzkera aldaketen inguruan trans emakume eta gizonak, hala nola gurasoek, egindako eskariak.
2. Trans pertsonen osasun esparru desberdinetan jasotako tratua inguruko kezak. Ez dira ohikoak, baina ebakuntza aurretik eta ondoren informazio gutxi jaso izana, hala nola ebakuntza prozesuan eta dagokion osatzean taktu eza nabaritu izana dira ohikoak.
3. Ongizate emozionala.- arreta eta laguntza psikologikoa eskaintzen duten zerbitzuen inguruko informazio eskariak, edo euren autoestimua eta antsietatea kudeatzearekin loturiko laguntza behar dutenak.
4. Azkenik, nahiz eta hein txikiagoa batean, ospitaleko medikazioaren zirkuitura sartzeko garaian zailtasunak dituzten etorkin seropositiboak.

Gizarte sentsibilizazioa.- Talde honetan, funtsean, erakunde eta komunikabide desberdinek data esanguratsuen inguruan eginiko eskariak barne biltzen dira. Gainera, multzo nahiko anitza da kolektiboaren errealitatea gizartearen esparru desberdinetara gerturatzeko asmoz erakunde desberdinek antolaturiko jardueretan parte hartzeko eskariekin.

- Udaletxeak edo beste erakundeak: data esanguratsuen inguruko informazioa, adierazpen instituzionalak, materialen banaketa, data zehatzetan hitzaldi/jardueretan parte hartzeko eskakizunak, LGTBI+ ikurriren eskariak, e.a.
- Komunikabideak: eskariak, batik bat, data esanguratsuen inguruan pilatzen dira. Gainera, zerbitzuaren prestazioen (itzulpen zerbitzua) zabalkuntzan, adierazpen instituzionaletan, hala nola LGTBI+ gaiko erreportajeetan laguntzeko interesa agertu dute.
- Sentsibilizazio-ekimenetan parte hartzeko gogoak duten pertsonen erreferentzia edo informazioa eskatzen duten hainbat erakunde: web-sail batean agertzeko prest dauden trans pertsonak, ikerketetan, komiki baten argitalpenean...
- Hitzaldi edota jardunaldietan parte hartzeko eskariak, eta ezin ezean ahalko luketen erakunde edo pertsonen kontaktua.



Sozializazio sareak.- Multzo hau osatzen duten eskaerarik ohikoenak dira:

1. Zerbitzuaren inguruko informazio eskariak: zer da, zein dira bere ekintzak, parekideez osaturik dauden taldeak dauden edo ez.
2. Hiriko LGTBI+ taldeen edo sareen inguruko informazio eskaerak.
3. Topagune taldeen eskariak, beldurrik gabe azaldu eta sozializatu ahal izateko esparru seguruak.

Orientazio sexuala.- Ehuneko oso txikia duen eskari mota bat da. Gatazka pertsonalak edota familiartekoak (inguruaren homofobia) barne biltzen ditu, baita auto-onarpen zailtasunak ere.

Ehuneko txikia izan arren, jasotako kontakizunetan, batik bat emakume lesbianenetan, (hainbat kasuetan) egoera lesbofobo oso zailak deskribatzen dira, batik bat gertuko inguruak eragindakoak.

Multzo honetan, asilo eskariak edota bulegoetara euren bizipenak azaldu eta euren orientazio sexualetan modu seguru atetan eta epaiketarik gabe berrespen bila datozen gazteen kasuak ere barne biltzen dira.

LGTBI+fobia.- lazko lehenengo seihilekoan bizitako etxe-konfinamendu egoera geroztik, mota honetako eskariak behera egin dutela nabarmentzen dugu. Ehunekoa txikia den arren, azpimarratu nahi dugu 34 direla egin diren arretak ondorengo gaietara lotuak:

1. Familiarteko gatazkak sexu eta/edo genero identitatearekin zer ikusia dutenak.
2. Eraso fisikoak.- Nahiz eta ez den kategoriarik ohikoena, honakoan atal hau nabarmendu nahi dugu bereziki. Lehenik eta behin, lehen eskutik dakigulako salatzeraz heldzen diren erasoak benetakoen zatirik txikiena direla eta, bestalde, egin ditugun arreta LGTBI+fobikoen bortizkeria maila bereziki larria delako (adibidez: homosexuala izateagatik 13en artean jipoitu zuten Basauriko mutilarena). Hala nola, ingururik gertukoenaekin harreman zuzena duten eraso LGTBI+fobikoak egoten jarraitzen dute (familia, bizikidetzaz-ingurunea), edo ikastetxe, osasun zentro, institutu eta abarretara loturikoak, non LGTBI+ gaien inguruko ezjakintasun orokor bat nabari den.
3. Orientazio sexual edota sexu eta/edo genero identitatearen ondoriozko diskriminazioa.- Urte honetan zehar bere orientazio sexualarengatik ustez lan-diskriminazioa jasan duen emakume bati egin zaio arreta. Gertakari bereziki esanguratsua da arlo publikoan gertatu izanagatik.

Nabarmentzen dugu eskaera mota hauei arreta egiteko Berdindu!-k Eraberean-ekin, (Eusko Jaurlaritzaren) *Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sareekin*, batera egiten duela lan.

ESKAERA ESANGURATSUAK

Atal honetan bere larritasunagatik bereziki esanguratsuak iruditu zaizkigun eskariak jasotzen ditugu.




Suizidio saiakerak: Gehiengoak ez diren arren, nabarmendu nahi ditugu urtean zehar istorio benetan traumatikoak heldu zaizkigula Berdindu zerbitzura, kasu honetan, protagonistak adingabeak izanik. Hainbat arreta egin dira beraien seme-alaben, suizidiotik gertu dagoen, egoera psikologikoarengatik kezkatuak dauden gurasoei. Adibidez, besoetan ebakiak, botiken gehiegizko erabilera, e.a. (Eskolak zerbitzuaren bitartez) Berritzeguneko dei bat jaso zen aurrekari psikiatrikoak eta suizidio saiakera dituen adingabeko bati arreta egiteko aholku eske. Errealitate hauek bereziki garrantzitsutzat ditugu euren ezaugarriak direla eta, eta gizarteak pertsonengan dituen ondorio gogorak erakusten dituztelako, modu pertsonalean.

Gizarte-kalteberatasun egoerak: Ez dira asko, baina bai hiru arreta egin ditugunak kalteberatasun egoeran dauden pertsonen (emakume trans bat eta bi mutil latino-amerikar): oinarrizko beharrak (ostatua) eta GIBarentzako botiketara heltzea (azkeneko bi kasuetan).

Asiloa: Urtean zehar hainbat lurraldetatik (Maroko, Aljeria, El Salvador...) datozen pertsonen eskariei egin diegu arreta. Euren berezko lurraldetik beraien ongizate fisikoarentzat dagoen arriskuarengatik ihes eginak. Istorio lazgarriak dituzten pertsonak dira, zeintzuei zerbitzuak laguntza emozionala, hala nola beraien asilo eskaerak indartzen dituzten txostenak eskaintzen dizkionak: 1. txostena. Istorio pertsonala eta eratorritako ondorioak / 2. txostena. Jatorrizko lurraldean LGTBI+ kolektiboarentzat dagoen egoera latza eta legezketasuna egiaztatzen dituen txostena.

KOMUNIKABIDEA

Ohikoa den moduan, komunikabide nagusia *Telefonoa* (%56) da eta, tarte handi samarrera, *Posta elektronikoa* (%23) eta *Aurrez-aurreko arreta* (%18). WhatsApp, bideokonferentzia eta sare sozialei dagozkien ehuneko txikiak ere ikus daitezke.




AURREZ AURREKOA	104	BIDEOKONFER.	11
TELEFONIKOA	331	BESTE BATZUK	0
POSTA E.	135	E. GABE	0
SARE SOZIALAK	4		



Aurrez aurreko arretei dagokionez, aipatu beharrezkoa da, geroz eta presa gehiago dagoela guztirako, batik bat gazteriarekin zer ikusia duten izapideetan. Honi, Internet bitartez geroz eta izapide gehiago egin daitezkeela edo kutsatzeko beldurra batuz gero, beheraka eragiten dio aurrez aurreko arretei. Edonola ere, kontuan izan behar dugu arreta guztiak (jarraipeneko arretak barne) kontuan hartu ezker, aurrez aurreko komunikabidea %25eraino igotzen dela. Honela izatea zentzuzkoa da, eskari asko dei baten ostean, aurrez aurreko arreta batekin erantzuten direlako .

ZERBITZUA EZAGUTZEKO MODUA

Grafikoan ikus daitekeen moduan, aurrez, gehiengo batek, %53ak, zuzenean jo dute zerbitzura, iazko %44aren aurrean. Une honetara arte eginiko hedapen-ekimenek, hala nola zerbitzuaren finkapen handiagoak, paper garrantzitsu bat izan omen dutela ulertzen dugu. Aipatu beharra dago zerbitzua kudeatzen zuten elkarten aurretiazko ezagutzak eratorbide garrantzitsua izaten jarraitzen duela.



BERDINDU	311
BESTE BATZUK	168
E. GABE	106



FAMILIEI LAGUNTZEKO TALDEAK

Jarduera hau 1.1.1 atalean kokatzen da. *LGTBI+ pertsoneri eta gertukoei egiten diren arreta orokorretan*, kontratazio honen plegu teknikoetan jasota dagoena.

laz jaso genuen bezala, esan beharra daukagu atal hau aurten bizi izandako egoera bereziak baldintzatu duela berriz ere. Gaur egungo osasun-egoerak, dagozkion mugekin, zaildu egiten ditu taldeko bilerak lokalean.

Aurten hainbat programazio-saiakera egin dira, eta saioak aurrera eramateko honelako lanketa hau egin da:

- Saioei buruzko kartelak egitea, bulegoetako beirategian jartzea eta posta elektronikoaren, sare sozialen eta erakundeen WhatsAppeko taldeen bidez banatzea.
- Zerbitzura jo zuten familia berriei ekimenaren berri ematea.
- Bulegoetako datu-baseen bidez, hartzaileak izan daitezken familien berrikuspena eta aukeraketa.
- Haiekin telefonoz harremanetan jartzea.

Zoritxarrez, 2021ean egindako bilera-saiakerak ezin izan dira gauzatu, eta online bilerak egiteko saiakerak ere ez dira eraginkorrak izan. Hurrengo faktore hauek direla eta :

- Osasun-egoera: talde-bileretako parte-hartzaileen kopuruaren muga ofizialaren etengabeko aldaketa; kutsatzeko egoeraren beldur pertsonalak; kutsatzeen gorakada, konfinamenduak, etab.
- Zenbait kasutan, adingabearen bizipenaren ziurgabetasunak eta hasierako beldur eta segurtasunik ezak halako talde batean parte hartzeko errezeloak sortzen dituzte. Kasu horietan errazagoa da eta batzuetan familiek eurek eskatzen dute, agertoki diskretu eta murriztagoak sortzea (agian beste familia batekin), beren bizipenak intimitate handiagoko giro batean partekatu ahal izateko. Hala egin da hainbat alditan eta kasu guztietan familiek prestakuntza-esku-hartzeak eskatu dituzte ikastetxean bertan.
- Ez dira gutxi lehendik dauden bilguneetan parte hartzen duten familiak.

Familien bilerak baldintzatu dituzten zailtasunak kontuan hartuta eta eskatu izan diren kasuetan, familia-talde bakoitzak planteatutako egoerei aurre egiteko familia-laguntza pertsonalizatuko lana egin dela azpimarratzen dugu. Hona hemen horietako batzuk:

- Ziurgabetasuna eta zalantzak seme-alaben sexu- eta/edo genero-identitatearen aurrean.
- LGTBQ+ kolektiboari buruzko informazioa, irakurketa eta/edo erakusketak eskatzea, seme-alabei laguntza osoagoa emateko.
- Seme-alabentzat erreferentzia pertsonal baliagarria izan daitezkeen taldeei edo gazteei buruzko informazioa eskatzea.



- Hormona bidezko tratamendu-prozesuan eta/edo gorputza aldatzeko prozesua hasteko aukerei eta bideei buruzko informazioa.
- Antzeko egoeran dagoen beste familia batekin elkartzeko eskaera.
- Laguntza ematea adingabeen ondoezaren eta haien barne-gatazken aurrean (suizidio-mehatxuak), kontuan izanda horrek familia-dinamikan izan dezakeen eragina.

Orain arte aipatutakoa alde batera utzita, esan beharra dugu ikastetxean egindako familia-taldeak aurrera atera direla. Guztira 11 saio egin direla (7 Bizkaian eta 4 Gipuzkoan), eta 217 gurasok parte hartu dutela (184 emakume eta 33 gizon).



BERDINDU ZERBITZUA

ESKOLA ARRETA



BERDINDU ESKOLAK ZERBITZUAK

Berdindu eskolak zerbitzuak 6 jarduera-ildo nagusi ditu, hau da: aholkularitzak irakasleentzat, ikasleentzako prestakuntza, irakasleentzako formakuntzak ikastetxeetan, familientzako prestakuntza, Berritzeguneetako profesionalentzako prestakuntza eta interes-taldeentzako prestakuntza. Halere, 2021ean egindako lanaren argazkia ahalik eta esanguratsuena izan dadin, erabiltzaileen arabera metatuko ditugu aipatutako zerbitzuak:

- Irakasleekin izandako jarduna
- Ikasleekin
- Familiekin


Hezkuntza komunitatea osatzen duten atal guztietan izandako jardunaren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egingo dugu ondorengo lerroetan.

IRAKASLEAK - FORMAKUNTZAK ETA AHOLKULARITZAK

Berdindu, bere ibilbide luzearekin, erreferente gisa finkatu da EAEn LGTBI+ kolektiboarekin zerikusia duen guztian. Hezkuntzaren arloari dagokionez, gero eta ikastetxe gehiagok hezkidetzeta eta sexu- eta genero-aniztasuna batera ulertzen dituzte, eta horixe da, hain zuzen ere, Berdindu eskolak defendatzen duen ekimena. Irakasleek ikasgeletan sexu- eta genero-aniztasuna lantzeko orduan zenbait segurtasun falta sumatzen jarraitzen duten arren, eskerrak eman dute haiei babesa eta aholkularitza emategatik


Izan ere, pandemiaren eraginpean jarraitzen dugun arren, ikastetxeetatik jasotzen dugun eskari kopurua gero eta handiagoa da zerbitzuko atal guztietan (bai ikasleen zein irakasleen formakuntzen eskarietan, batez ere). Zentzu honetan, COVIDaren aurreko zenbakietara heltzear gaude normaltasunerako bidean.

Hau da, Berdindu eskolak zerbitzua martxan hasi zenetik izandako garapena irakasle kopururari dagokionez:






Irakasleekin aholkularitzak eta sexu/genero aniztasunaren inguruko ikastaroak landu dira. Partaideen sexuari erreparatuta, honako argazki hau daukagu:



Ikastetxeek gehien eskatzen duten zerbitzua formakuntzari dagokio, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala:



AHOLKULARITZAK IKASTETXEETAN

Egindako aholkularitzetatik ateratako ondorio nagusia argia da: ikastetxeek aholkularitza eta akonpainamendua eskatzen dute gehienetan trans ikasleak dituztenean. Kezka somatzen da baita ere, bigarren hezkuntzako institutuetan LGTBI+fobia zantzuak antzematen dituztenean (homofobia, lesbofobia...).

Abiatu ditugun aholkularitza gehienetan irakasleen formakuntzaren beharra aitortu da. Nahiz eta errelitate bat izan, irakasleagoak gero eta beldur gutxiago duela gaiari heltzeko. Zenbait kasutan trans



ikaslearen akonpainamendua modu egokian bideratzen den arren, transfobiaren beldur dira irakasleak, eta hori saihesteko tresnak eta dinamikak eskatzen dituzte.

Aholkularitzak zein formazio eskaera gehienak Berritzegune Nagusitik jaso dira, batez ere urtearen lehen sehirekoan, gero kudeaketa sistema aldatu egin zen eta (udako oporren ondoren aukera eman zitzaizen ikastetxeei zuzenean eskaerak bideratzeko). Halere, komunikazio bikaina izan dugu Berritzegunea eta Berdindu eskolak zerbitzuaren artean eta zenbait egoeretan, elkarlanak eskuahartzea eta jarraipena ahalbidetu du.

FORMAZIOEN BALORAZIOAK

Osasun egoerak asko markatu ditu aurten bideratu ditugun formakuntzak. Aforo mugak, espazioak eta aireztatu beharrak, eta batez ere, talde txikietan aritu beharrak formula berriak asmatzera behartu gaitu. Zenbait kasutan ikastaroak on line egin dira, batez ere urteko lehenbiziko partean. Beste zenbaitetan erdi presentzialki, hau da, talde txiki batekin ikastetxean bertan eta besteek jarraipena on line eginez. Edozein kasutan argi geratu dena da irakasleek nahiago dutela presentzialki egitea, feedback-a ez baita berdina ordenagailu baten atzean egonda, zer esanik ez partehartzeari dagokionez.

Aurrez aurreko hezkuntza eta urrutiko hezkuntza ez dira gauza bera. Hezkuntzari dagokionez berdinak direla uste izaten da zenbaitetan. Irakaskuntza jardueretan urrutiko hezkuntzaren elementuek erabat baldintzatzen dituzte ikasleen ikaskuntza prozesua eta programen eta helburuen lorpena.

Berdindu Eskolak zerbitzuak egoera zehatzetan emandako aholkularitza eta jarraipena asko eskertu dute ikastetxeek eta Berritzegunetako zenbait kidek. Horrez gain, prestakuntzan landu diren tresnak eta gaiarekiko ikuspegi zabalaren aberastasuna baloratu dituzte bereziki. Ikus-entzunezko materialen lanketa egiteaz gain, egunerokotasunean ikuspegia txertatzeko irizpideak martxan jarri dira eta kasu edo egoera zehatzak bizi dituzten ikasleei ahalik eta akonpainamendurik egokiena egiteko urratsak landu dira.

Ondorengo taulan formazioa jaso duten irakasleen balorazioen emaitzak jaso dira:

(1etik 5era: 1- oso gaizki, 2- gaizki, 3- nahikoa, 4- ondo, 5- oso ondo)

	BALORAZIOA
Edukiak	4,56
Ulergarritasuna	4,71
Metodologia	4,41
Erabilgarritasuna	4,56
Igurikapenak	4,38




NOTA OROKORRA	4,51
Gomendagarria da formakuntza?	Bai: % 98,7; Ez dakit: % 1,3; Ez: % 0
Zelan sentitu zara?	Ondo: % 96,8, Kili-kolo: % 3,2; Gaizki: % 0


FORMAZIOA JASO DUTEN IKASTETXEAK

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
HAUR HEZKUNZA+LEHEN HEZKUNTZA	4	24	6	34
BIGARREN HEZKUNTZA	1	14	6	21
BESTE IKASTETXE MOTA (PCPI, FP...)	0	1	2	3

Eskaera gehienak lehen hezkuntzako ikastetxeetatik datoz. Halere, kontutan izan behar da, bigarren hezkuntzako institutu asko gero eta handiagoak direla eta talde bikoizketa egin behar izan da. Zenbait kasutan 5 lerroko institutuak izan ditugu eta eskoletan gehienetan 2 lerro baino ez daude. Horrek esan nahi du errez topa ditzakegula 80 irakasletik gorako bigarren hezkuntzako ikasguneak.



Eskaerari erreperatuta eta batez ere eskolen izaerari begiratuta, honako zailkapen hau ikus dezakegu (publikoak edo itunpekoak):



Eskaera gehienak ikastetxe publikoetatik datoz, argi ikus daitekeen bezala. Eta hauetatik, gehienbat Lehen Hezkuntzakoak.

IKASLEEN FORMAKUNTZAK

Se han realizado 159 talleres en total en la CAPV.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
HAUR HEZKUNZA+LEHEN HEZKUNTZA	8	36	32	76
BIGARREN HEZKUNTZA	14	38	31	83
GUZTIRA	22	74	63	159


Ondorengo taulan, herrialde bakoitzean 2021ean Berdindu Eskolak Zerbitzuko tailerretan parte-hartu duten ikasleen kopurua islatzen da, norberaren identitatea kontuan izanik.

	NESKAK	MUTILAK	EZ-BITARRAK	GUZTIRA
ARABA	247	253	7	507
BIZKAIA	707	758	12	1477
GIPUZKOA	562	594	80	1236
GUZTIRA	1516	1605	99	3220

Identitateari dagokionez, hiru herrialdeetan nola identifikatzen diren erantzuterakoan, gehienak neska edo mutilak bezena identifikatzen direla erantzuten dute. Aurten, neska eta mutilen parte-hantzea parekatu da eta ez bitarren ehunekoak gora egin du iazkoarekin alderatuta. Ez bitarren



multzoan, ez bitarrez gain, erantzun nahi izan ez dutenak, ez dakitela adierazi digutenak eta identitate jariakorra dutenak barnebildu ditugu.



Geroz eta eskola gehiagok ikusten dute aniztasun afektibo sexuala ikasgeletan lantzeko beharra: dela eraso LGTBI+foboak ematen direlako eskolan, LGTBI+ komunitateko ikasleak daudelako ikasgeletan eta zentroak ez dakizkielako zenbait egoera kudeatzen edota gaiaren inguruan hitz egin nahi baino bertako irakasleak ausartzen ez direlako. Eskaera mordoa iritsi da 2021ean baino tamalez, baina tamalez, ezin izan diegu guztiei erantzun. Hala ere, aurrera atera diren saio horiek modu positiboan baloratzen ditugu. Izan ere, eskoletatik egiten diguten eskaera konstantea da, guztiei erantzun ezin izanik. Horretarako gehien erabili den harriminta Berritzegune Nagusia izan da. Eurak egin dute harreman kudeaketa ikastetxeen eta Berdindu zerbitzuaren artean. Horretarako eguneroko elkarlanean egon gara bi zerbitzuak ikastetxeei tailer hauek eskaini ahal izateko.

IKASLEEN EBALUAZIOAK

Ebaluazioak begiratu gero, nabarmena da saioak oso aberasgarriak izan direla eurentzat. Alde batetik, aniztasun afektibo sexualaren eta oro ar hezkuntza sexualaren inguruko jakintza minimo bat eskuratu eta zalantzak argitzeko baliatu dituzte saioak; bestetik, gune eroso eta seguru bat sortzea lortu da sexu-aniztasunaren inguruan dituzten kezka edo gogoeta pertsonalak adierazteko, azken hori gauzatu ahal izateko espazio seguru gehiegi ez izatea onartzen baitute.

HEZITZAILEON EBALUAZIOA

Azken urteetan gertatzen ari den moduan, desoreka geroz eta nabariagoa dago ikasleen arteko jakintza mailan. Duela urte batzuk herri desberdinen artean ikusten genuen moduan, orain ikasgela barruan gaiaren inguruan dagoen jakintza zein sentsibilitate maila oso desberdina da. Honek askotan zaildu egiten du gure lana, izan ere, oreka lortu behar da gutxien dakienak saioa jarraitzeko moduko edukiak landu eta aldi berean jakintza handia duen hori aspertu ez dadin. Dena den, oso positiboa iruditzen zaigu geroz eta gazteagoak direnek jakintza eta interes handia dutela gai horren inguruan.



Izan ere, LHko saioetan (10,11 edo 12 urteko hurrekin) aniztasun afektibo sexuala geroz eta modu sakonagoan lantzea lortzen ari gara.

Bestetik, geletan LGTBI+ errealitateak geroz eta gehiago dira. Kolektiboko parte diren ikasle ugari topatu ditugu, eta ia guztiek ezagutzen dute gertutik LGTBI+ kolektibokoa den pertsona bat baino gehiago. Honek gure lana asko errazten du, izan ere, erreferente errealak askoz positiboagoak iruditzen zaizkigu askotan telebistan ikusten dituzten beste batzuk baino. Dena den, oso adierazgarria egiten zaigu ikasle ez-bitar edo euren generoa adierazi nahi ez duten horien kopuruaren gorakada. Azken urte hauetan transexualitate egoerak geroz eta ugariagoak egin diren bezala, epe laburragoan pertsona ez bitarrak ere geroz eta gehiago direla ikusten ari gara. Dena den, oso ezkutuan dagoen errealitatea da oraindik eta lan handia dugu hori ikusarazi eta horren inguruan hausnartzen ikasgeletan.

Sexu-hezkuntza gazteria gizarteratzeko mekanismo gisa ulertzen dugu, garapen pertsonalean horren garrantzitsuak diren aniztasun eta errespetuan oinarritzen baita. Beraz, esku-hartzeak arrakastatsuak izan dira eta balorazioek adierazten dute saioak oso positiboak eta aberasgarriak izan direla. Orain arte azaldutakoagatik, bide horretan jarraitzeko asmoa berresten dugu. Sexualitatea ikasgeletan landu beharreko funtsezko gaia da eta guk bide hori jorratzen jarraitzeko asmoa dugu, errealitate sexual bakoitza ahalik eta modu zoriotsuenean bizitzeko eta gizarte anitz eta errespetuzkoagoa eraikitzen laguntzeko gaitasunak eta trebetasunak errazteko.

FAMILIEN FORMAKUNTZAK

COVID-19ak familien formakuntzak bertan behera utzi zituen arren, aurtengo azken hiruhilebetan batez ere errekuperatu dira formakuntza hauek. Guztira 11 formakuntza egin dira (7 Bizkaian eta 4 Gipuzkoan) eta beti ere, trans egoeran dauden ikasleen eskoletatik edo gurasoek hala eskatuta jaso ditugu eskaera hauek.

Udaberri aldera osasun egoerak hobera egin zuenez, zenbait eskoletako gurasoak animatu egin ziren tailerrak antolatzerara eta pixkanaka zerbitzua errekuperatzen hasi da. Hala ere, kasu guztietan osasun neurriak, talde txikietan biltzea eta aforoak, beti errespetatu dira.

Guztira, 217 partaide izan ditugu (184 emakume eta 33 gizon).

BESTE INTERES TALDE BATZUK

Berdindu Eskolak ikastetxeetan eskaintzen dituen prestakuntzekin eta gainerako zerbitzuekin batera, 2021. urtean interes-taldean atal berri bati ekin diogu. Aurten, CEAR Oñatiko egoitzan bertako langileei zuzendutako lehenbiziko formakuntza pilotoa jarri dugu martxan.

Irakasleekin lantzen den formazioa euren errealitatera egokitzen ahalegindu gara 3 ordutako tailer batean. Bertan sexu/genero aniztasuna aztertu eta bere konplexutasunean ulertzen saiatu gara.



Emitza ona izan da, partaideek gustura hartu dute formakuntza, baina beharra dago zentru hauetako zein pisu tutelatuetako hezitzaileen bizipenetara egokitzeko.

Horrela, ikastaroaren helburuak eta zehaztasunak laburtzen dituen dokumentu bat prestatu da ikastaro hauen eskaintza zabaltzeko eta hedapena Berdinduko teknikariak bideratu du.